ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Hirigintza
Urbanismo

2022IKIE0021

BEHARREN TXOSTENA.

ELGOIBARKO ALTZOLA AUZOKO BAINUETXEKO ZUMARDIAN PRETILA KONPONTZEA.

2021eko abenduaren hasierako uholdeetan, Deba ibaiaren ur-goraldiak Altzola auzoko Bainuetxeko Zumardian zegoen pretila Urak eraman zuen luzera haundi batean, eta geratzen diren pretil zatiak uraren indarrak kaltetu du.

Injelan SL ingeniaritzari proiektu bat eskatu zitzaion petril hori iragazkorra ez den beste batekin ordezkatzeko, eta horrek ibaiaren ibilguari eragiten dio, ibaiaren ur-goraldia gertatuz gero baldintza hidraulikoak aldatzen direlako.

Proiektuaren barruan sartzen dira lehendik dagoen petrilaren zati bat eraisteko lanak, sastrakak kentzeko eta beharrezkoak diren lur mugimenduak egiteko, hormigoi armatuzko petrila eraikiz azkenik.

Kontrataren aurrekontua, BEZ barne, 110.000,00 eurokoa da. Lanak egiteko aurreikusitako epea 12 astekoa da.

Lurralde Politikarako Estatu Idazkaritzaren 2022ko irailaren 9ko Ebazpenaren bidez (2022ko irailaren 14ko BOE, 221. zk.), 122.261,68€ko dirulaguntza esleitu zaio Elgoibarko Udalari pretila konpontzeko eta inguruko asfaltatzen lanak egiteko, probintziako eta uharteetako bide-sarean izandako kalteengatik dirulaguntzaren deialdiaren barruan. Dirulaguntza horiek Ministro Kontseiluaren 2021eko abenduaren 17ko Erabakian daude aurreikusita, eta erabaki horren bidez, Babes Zibileko larrialdi batek larriki kaltetutako zenbait autonomia-erkidego izendatu ziren, 2022ko apirilaren 11ko Ebazpenaren bidez onartutako deialdiaren bidez (2022ko apirilaren 13ko BOE, 88. zk.).

Kontuan hartuta 2023ko aurrekontuan aurrekontu-partida bat dagoela bide publikoak konpontzeko eta urbanizatzeko obretarako, obra kontratatzeko prozedurari hasiera ematea proposatzen da.

Baliabide propioei dagokienez, adierazi behar da lan bereziak direla, eta berariazko makineria behar dutela. Horren ondorioz, obra hori ezin dute bertako langileek egin.

Sinatzailea/Firmante	Arkitektoa ALOÑA URTEAGA LIZARRALDE Arquitecto/a		
Kodea/Código	BH22/1493	Udala/Ayto.	Elgoibar
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/100/AAAARPLA1.CDhK		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitez edo QR irudia irakur ezazu. / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la validez acceda a la WEB o lea la imagen QR			